
USO
POP
FESTIBALA #5
MAIATZAK 31 MAI 2014
SARA - LIZARRIETA
SARTZEA / ENTRÉE: 9€
3:30 etatik goiti / à partir de 15h30
// ANARI & AGUXTIN ALKHAT
// SEBASTIEN SCHULLER
// MOBYDICK BAND
// KID WISE
+ VIE SAUVAGE set
MUSIKOLORE
Abereen Dantza
Jatekoa bertan / Restauration sur place • Info: info@usopop.com - 06 70 07 76 56
Elkarteak ez ditu arazoak bere gain hartzen / L'association décline toute responsabilité en cas d'accident.
© haïkudesign

## SAR HITZA

5urte dira, edo hobeki erran 5 edizio udatiar USOPOP Lizarrietan sortu zela. Barnetik sentitzen dugun musikaren inguruan, lagunak, familia, musika zaleak edo kuriosak Sarako xoko natural zoragarri batean biltzea genuen xede. Xumea izan arren, jendetza bildu zen eta abenturak aintzina jo du.
USOPOPek oroitzapen ahaztezinak utzi dauzkigu. Aunitzen artean nola ez aipa Uncle Jelly Fishen ( gaurko Archipel) erritmo tropikalak, haurren begirada dirdiratsuak Xan Errotabeherren ipuinak entzuterakoan, edo Belakok euria eta kalerna nola haizatu zituen bere rock indartsuaz.

Bostgarren urtemuga ospatzeko tenorea etorri da. Sarako gaztelua, liburutegiko parkea edo kapera ezagutu eta, begibistakoa zen ohantzera itzuli behar ginela, Lizarrietako oihanera. Izan ere, USOPOP 5 # festibala, probintzien elkargunea den Lizarrietako lepoan den Hiruetako erreka gunean iraganen da maiatzaren 31an.

Bi berrikuntza nagusi izango dira. Lehenik ordutegia moldatu dugu.Gaineko gunearen edertasuna, eguzkiaren azken izpiak joan arte dastatzeko, goizago hasiko da. Eguna 3ak30 hasiko da haurrentzako kontzertu batekin. Bigarrenik eszena berri bat antolatu dugu, arratsaldeko emanaldiak oihanean murgilduta egingo dira.

Edukiari dagokionez, gure betiko ardatzak segitzen ditugu. Hala nola Euskal Herriko eszena berriko artista bat, artista konfirmatu bat, ondoko hilabeteetan sorpresa emango duen talde bat, animazioak eta mini usopoplarientzat maxi kontzertu bat.
Izan ere, haurrei zuzendua den Philippe Alborrek sortutako Musikolore ikuskizunak eguna estreinatuko du. Tintatzaileak koloreekin egiten duen bezala, hizkuntzak ( euskara, frantsesa, gaztelera, kreola, inglesa...) eta soinuak nahasten ditu bizitasun handiko kontzertu batean.
Ondotik, soilik egun horretan entzun ahalko den kontzertu bat izanen da. Anarik eta Aguxtin Alkhatek oholtza partekatuko dute berezia

## EDITO

Déjà 5 ans, ou plutôt 5 éditions depuis ce premier rendez-vous lancé en 2010, date à laquelle naissait USOPOP sur les hauteurs de Lizarrieta. Avec pour seule prétention celle de réunir autour d'une certaine idée de la musique des amis, des familles, des passionnés, des curieux dans un écrin naturel où chacun aurait sa place, l'aventure d'une soirée trouva alors son écho auprès d'un public et d'une communauté qui depuis continuent de faire vivre ces envies.
Des rythmes tropicaux de Archipel en 2010, du rappel a cappela d'Anari devant un public pris aux tripes lors de la première édition de USOPOP Kontrapasa, des yeux écarquillés des enfants à l'écoute des contes de Xan Errotabehere ou de l'ovni Belako bravant la pluie dans le parc de la bièbliothque, voilà de quoi s'est nourri la mémoire (courte) de USOPOP au fil des rendez-vous.
Aussi, à l'heure de fêter son 5ème anniversaire, quoi de mieux que de retrouver ses racines et retourner là où tout a commencer, auprès de ce qui fait partie intégrante de USOPOP : la forêt de Lizarrieta.
C'est donc là-haut, à la croisée des provinces, que se déroulera USOPOP Festibala #5, le samedi 31 mai sur le site dit d'Hiruetako Erreka.
Nouveauté principale sur cette édition en pleine nature : un horaire avancé puisque les portes ouvriront dès 15h30 afin de profiter pleinement du cadre environnant et des derniers instants de jour. Quant au programme, on y retrouvera comme à chaque événement de la découverte, un artiste marquant de la nouvelle scène d'Euskal Herri, un incontournable et bien sûr un « maxi » concert pour les « mini » usopopari. C'est d'ailleurs avec MUSIKOLORE, spectacle multilingue pour enfants à la découverte des instruments et des différents horizons musicaux crée par Philippe Albor et Patrick Fischer, que débutera ce 5ème festival suivi d'un concert dans l'herbe assez inédit où Anari, qu'on ne présente plus, partagera la scène avec Aguxtin Alkhat pour un moment que l'on sait déjà marquant. Plus tard, ceux sont Mobydick Band, Kid Wise et Sébastien Schuller qui occuperont la scène principale pour une soirée naviguant entre folk-country alternatif, indie-rock progressif et

izango den momentu batentzat. Iluntzean, oholtza nagusian hiru artista ariko dira: Mobydick band, Kid Wise eta Sébastien Schuller taldeek folk rock, indie rock eta elektronika doinuak zabalduko dituzte.

Eneko Burzako aka Mobydick getxotarra, gure artean ukan genuen 2011an. Bakarka ezagutu bagenuen aldi honetan 'Cotard Delusion' lan berria aurkeztera dator seikote moduan. Amerikako zati bat Euskal Herriratuko dute.
Haren segida Tolosako ( Okzitania) Kid Wiseek hartuko du. Augustin Charnetek zuzentzen duen seikotea gaztea izan arren jada 2 EP dituzte, disko berria grabatuta eta 'Hope » hitaren bideoklipak munduaren itzulia egina du.Uda huntako festibal garrantzitsuenak egingo dituen taldekideak Sigur Ros handien zaleak direla badakigu eta desberdinak izan arren haien lirismoak urrun eramango gaitu. Bukatzeko Philadelphian bizi den Sébastien Schuller frantses multi instrumentalaren itzulera ukanen dugu. 2005 Happiness eta 2009an Everfall goraipatuekin pop onirikoa gailurrera eraman zuen. Udazkenean kaleratuko duen 3.lanean ohiko melankolia new wave eta synthpop doinuek jantziko dute.

Haiezgain, Usopopek laguntzat dituen festibalak gonbidatzen segitzen du. Joan den urtean Jazpanako gipuzkoarrak etorri ziren, aurten Girondako Vie Sauvageko lagunek dute musika jarriko.

Eta nola ez, bertako ekoizpenatiko produktuak dastatzeko aukera izango dugu USOPOP ostatu-jatetxe xokoan.

pop-electronica planante.
Mobydick aka Eneko Buzako, déjà présent en 2011 en solo, revient avec 4 musiciens présenter son premier album Cotard Delusion, un disque maitrisé l'installant déjà comme le meilleur représentant de l'americana en Euskal Herri.
Derrière Kid Wise on retrouve le toulousain Augustin Charnet et 5 compères. A peine 20 ans au compteur, 2 ep et un tube Hope porté par un clip primé et les voilà à l'affiche des principaux festivals français (Vieilles Charrues, Garorock…). On les sait fans de Sigur Ros, ils en ont en tout cas le lyrisme et avec une prestation scénique qui s'annonce dense, Kid Wise attise déjà les curiosités.
Enfin, le grand retour en Europe de Sébastien Schuller, le multi-instrumentaliste français basé à Philadelphie qui se fit connaître en 2005 avec son premier album Happiness, inévitable éloge de la pop onirique acclamé par la critique. Après Evenfall en 2009, il arrive en trio présenter sa 3ème production à paraître à l'automne et où beats new-wave et synth-pop devraient avoir la part belle. Un artiste aussi talentueux que discret et rare qui fait de ce concert un événement.

Pour le reste, USOPOP renouvelle l'invitation aux festivals-amis entamée avec Jazpana l'année passée en recevant cette fois-ci les girondins de Vie Sauvage pour un dj set taillé sur mesure.

On n'oubliera pas bien entendu le coin restauration avec un bar et restaurant mettant en avant les produits locaux et de qualité.

L'appel de la montagne nous promet donc des moments exaltants, de l'échange et des rythmes au cœur pour ce 31 mai à Lizarrieta. Tout ce que peut souhaiter USOPOP Festibala #5.




2005. urtean melankoliaz eta edertasunez beteriko Weeping Willow bezalako kantuez osatutako Happiness lehen diska ezagutzera eman zuen. Evenfall bigarren lanarekin frantses artista , pop edo elektronika zaleentzat erreferentzi bilkatu da.
Azken lau urteak Philadelphian eman ditu. Han idatzi duen 3. lan luzea irailean kaleratuko du udazkenean Frantzia eta Europa barnan bira handin bat egin aintzin. Diska hori bertze lanak baino elektronikoagoa izango dela dio, pop onirikoa eta une instrumentalez tartekatuz. Aukera paregabea da Saran ikus ahal izana.

---

Apparu en 2005 avec Happiness, un premier album où se trouvait Weeping Willow, véritable hymne à la mélancolie et la contemplation, Sébastien Schuller s'est imposé en seulement 2 albums comme une des références des années 2000 en terme d'orfèvrerie pop et d'électronique céleste. Français basé à Philadelphie, ce discret compositeur présente son 3ème LP à paraître en septembre, un album annoncé plus électronique que ses prédécesseurs mêlant pop et plages instrumentales et ayant pour décor la tempête Irene qui frappa les Etats-Unis en 2011.
Rare, emplie d'émotions, chaque production ou apparition de Sébastien Schuller est un événement et sa venue à Sara en prélude d'une tournée automnale un des rendez-vous live important de ce printemps.

MAIATZAK 31 MAI 2014 – SARA (LIZARRIETA)




Mobydick Eneko Buzako Getxotarraren proiektua da. 2011. urtean USOPOP 2 # festibalean «  aAnd Then She Became God's Friend » lana bakarka aurkeztu zuen. Bere ahots indartsuaz eta gitarraz lagundurik Ipar Amerikako lurretara eraman gintuen bertako maisu handienak gogora araziz. Lehen obra honetan erein zituen folk, americana edo rock haziak garatzen laguntzeko bertze musikari batzuen laguntza behar izan du. Horren fruitua 2013 urtean kaleratu duen «  Cotard Delusion » diska handia. Kantuak aberatsak dira, sakonak eta iluntasunaren gibelean argi izpiak nabarmentzen dira. Usopopentzat Mobydick bizkaitar cow-boya seikote ( piano, bi gitarra, bioloncelloa...)  batez inguratzen da lur gustua duen folkak elektrizitatearekin talka egin dezan.

Eneko Mobydick débarqua sur la scène de USOPOP Festibala #2 en 2011 à la faveur d'un premier ep « And Then She Became God's Friend » distribué gratuitement sur la toile et sur lequel on découvrait un univers inspiré des grands noms de l'americana comme Johnny Cash, ou plus récemment Bill Callahan ou encore Bonnie Prince Billy. Une voix rocailleuse et 6 cordes entre les doigts, il trimballa alors sa carrure sur les principales scènes d'Euskal Herri en solo jusqu'à la sortie en 2013 de l'album Cotard Delusion, une production studio ambitieuse et largement orchestrée explorant jusqu'au bout des compositions alt-country mais où des titres comme Hey God viennent rallumer une flamme résolument folk.
Désormais accompagné d'un sextuor acoustique, Mobydick est une véritable équipée sauvage qui ouvrira la scène principale de ce USOPOP Festibala #5.

MAIATZAK 31 MAI 2014 – SARA (LIZARRIETA)




Tolosako (Okzitania) taldea gaztea izan arren fenomeno bat bilakatzen ari da. Jada bi EP dituzte, irailean kaleratuko duten diska grabatu berria dute eta uda honetan haien rock lirikoa festibala handietan ( Garorock, Vieilles Charrues...) estreinatuko dute.
Augustin Charnetek sortu proiektuak nerabe zenaren logelako paretak gainditu ditu. Gaur egun seikote sendo bat osatzen dute mutiko zentzudun horiek. Wild Beasten ahotsa eta new wavea , Ghinzuk zuen rockaren ikuspegiarekin edo post-rock indartsuenarekin nahasten duen taldea 2012. urtean Belako izan zen bezala sorpresa itzela izango da.

---

Initialement projet personnel de Augustin Charnet, un « kid » toulousain obsédé de bidouillage musical et de mélodies pop, Kid Wise est ce qu'on peut appeler un peu vulgairement un phénomène. A commencer par son fondateur, qui du haut de sa majorité fraîchement atteinte affiche des aptitudes à la composition à faire rougir nombre de ses ainés doublées d'une âme de travailleur assidu (il se dit qu'il composait des pièces classiques pour piano à 11 ans). Et un parcours pour le moins fulgurant, quant on sait qu'il y a 2 ans Kid Wise avait pour écho les murs d'une chambre d'ado et que 2 ep plus tard et rejoint par 5 compères, Augustin joue en 2014 sa pop progressive sur les scènes des principaux festivals français et fait s'emballer le landerneau indie.
A la croisée d'un Wild Beast pour la froideur new wave et d'un Ghinzu pour les envolées rock noires, Kid Wise s'annonce, à l'instar de Belako en 2012, comme une déferlante scénique à découvrir ce samedi 31 mai.

MAIATZAK 31 MAI 2014 – SARA (LIZARRIETA)







Bakotxak bere eran Usopopen istoria egin duten bi artista elkartzen ditugu. Batetik azken 20 urte hauetan euskal kantagintzan leku berezia duen Anari. 5 disken bitartez folk lehorrena rock indartsuarekin uztartu ditu. Diskografia aberatsak eta ibilbide independenteak ( Bidehutsen sortzaileetariko bart da) leku berezi bat eskaintzen dio Usopop desmartxan. Bestetik Aguxtin Alkhat heletar folk abeslaria. Joan den urtean ' Ihes egin' ( USOPOP diskak) 6 kantuz osatutako lehen lana kaleratu zuen. Lehen urratsak Inahala hirukotean eman zituen eta ondotik hainbat kontzertu bakarka eman zituen. Julien Labat, Xan bidegain eta Félix Bluff lagunekin elkartuz geroz lurralde elektrikoagoak zirikatu ditu. Ondoko lanarentzat konposizio berriak badtu eta berdin egun horretan batzuk entzuten ahalko ditugu.
Ehunka urte dituzten arbolen gerizan momentu berezi bat eskainiko digute bakarkako uneak, bertsio eta kolaborazioz tartekatuz.

---

Ou comment réunir sur scène 2 artistes qui chacun à leur façon porte en eux l'histoire de USOPOP.
Anari d'une part, qui depuis 20 ans incarne le songwriting en euskara au travers de 5 albums incontournables entre folk épuré et rock abrasif et à l'origine du label auto-géré bIDEHUTS (Lisabö, Willis Drummond, Mursego, Audience…). Une discographie et un parcours indépendant qui lui donnaient une place de choix dans la démarche USOPOP, bien avant sa première visite en 2011. De l'autre, Aguxtin Alkhat, qui l'année passée présentait Ihes Egin, son premier 6 titres (USOPOP Diskak) où, après des débuts dans le trio folk-trad Inahala au sein duquel il officiait comme auteur-chanteur, il visitait des terres plus électriques en compagnie de Julien Labat, Xan Bidegain et Felix Buff. Compositeur prolixe, il enchaîne les lives et prépare une nouvelle production avec des titres à découvrir ce 31 mai.
Rendez-vous dans la forêt de Lizarrieta pour cette rencontre attendue car inattendue.

MAIATZAK 31 MAI 2014 – SARA (LIZARRIETA)

# BAITA ERE…

## MUSIKOLORE

Haurrentzako ikusgarri eta proiektuetan urteak daramatzan Philippe Albor ez dugu aurkezterik. Duela pare bat urte sortu duen Musikolore ikusgarriarekin dator aldi honetan. Eskoletako hainbat haurrekin egina zuen diskaren kantuak Patrick Fischerren laguntzarekin taularatzen ditu Tintatzaileak koloreekin egiten duen bezala, hizkuntzak ( euskara, frantsesa, gaztelera, kreola, inglesa...) eta soinuak nahasten ditu bizitasun handiko kontzertu batean.. Mezu humanistak rock, pop, cumbia, folk edo salsa aireekin lau haizetara zabaltzen ditu.

Célébration humaniste et découverte de nouveaux horizons : voilà comment pourrait-on définir le nouveau spectacle de Philippe Albor. Accompagné pour l'occasion par Patrick Fischer, ils dessinent à 4 mains des paysages musicaux mêlant styles rock, cumbia, folk et langues du monde (euskara, français, créole, anglais…) dans un spectacle haut en couleurs faisant suite au disque du même nom.

## VIE SAUVAGE set

Kostaldeko Baleapopeko eta Beasaingo Jazpanako kusiak gonbidatu eta familia aurkezten segitu nahi genuen. Aurten Vie Sauvage Girondako hedonistak jingo dira musika ona festibalari guziei eskaintzera.

Après les cousins maritimes Baleapop et les beasaindar Jazpana, USOPOP continue les présentations de la photo de famille en invitant pour un dj set Vie Sauvage, festival né au milieu des vignes bordelaises autour de valeurs hédonistes et de découvertes de nouveaux horizons. On ne peut que les aimer fort.

## …ABEREEN DANTZA.

# XEHETASUN PRAKTIKOAK / INFORMATIONS PRATIQUES :

USOPOP FESTIBALA #5 - maiatzak 31 mai 2014
SARA (Lizarrieta)

15h30 :
MUSIKOLORE
ANARI & AGUXTIN ALKHAT

18h :
MOBYDICK BAND
KID WISE
SEBASTIEN SCHULLER

Sartze orokorra/Entrée générale : 9€ (urririk 12 urte azpiko haurrentzat).

**CONTACT :**

Association USOPOP Elkartea
Bola bidea
64310 SARA/SARE
www.usopop.com
info@usopop.com

+33 (0) 610 752 171 / +33 (0) 670 077 656